

XX. Jagon jardunaldia: *Hedabideak euskararen
sustapenean*

Hedabideak eta Hizkuntza Politika

Euskarabidea /

Euskararen Nafar Institutua

Hedabideak eta hizkuntza politika

- ▶ Orain arte gertatutakoaren historia laburra
- ▶ Hizkuntza politika berriaren printzipioak
- ▶ Sustapenerako ardatzak
- ▶ Sustapenerako arrazoiak
- ▶ Aurrera begirako aurreikuspenak

Historia laburra

Hedabideetan euskara sustatzeko deialdiak egiten ziren, baina ez zegoen estrategia/plangintza berezirik.

- ▶ **1990-1999: Euskararen Legearen III. Titulua, Komunikabide sozialak, abiapuntutzat hartuta, 200.000-300.000 euro arteko deialdiak antolatzen ziren.**
- ▶ **27. artikulua:** 1. Administrazio Publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute. Horretarako, Nafarroako Gobernuak diruz eta materialez laguntzeko planak gauzatuko ditu, komunikabideek euskara progresiboki eta ohiko moduan erabil dezaten.
- ▶ **Hazkunde urteak**

Historia laburra

2000tik 2011ra bitartean:

- ▶ **Aurreko urteetan emandako diru kopuruak mantendu ziren**
- ▶ **Harremanak, aldiz, goraberatsuagoak izan ziren:**
 - **Arazoak irratien eta telebisten lizentziekin.**
 - **Harreman eskasak euskararen eremu osoko hedabideekin.**
- ▶ **Euskarabidearen sorrerak norabide aldaketa ekar zezakeela ematen zuen:**
 - **2008an 310.000 euroko deialdia egin zen (aurreko urteetako beheranzko joera aldatuz).**
 - **Hedabideekin bilerak egin ziren.**
- ▶ **Baina 2009an ez zen euro bakar bat ere egon, hurrengo urteetan gertatuko zenaren aurrekaria.**

Historia laburra

2011 - 2015: Etenaren legealdia

- ▶ **2011n 210.000 euro banatu ziren. Hurrengo hiru urteetan ez zen laguntzarik banatu.**
- ▶ **Eurokartaren aplikazioa ebaluatzen duten txostenen kritikak saihesteko, Nafarroako Gobernuak Albistegune webgunea sortu zuen. Hedabideei eduki atemporalak eskaintzen zaizkie, baina ez ditu haien eguneroko premiak asetzen.**
- ▶ **Egoera honen aurrean hedabide batzuek plantillak murriztu zituzten, garapena kolokan jarri zen, eta itxi ere egin ziren: Ttipi Ttapa telebista, Esan Erran irratia**

2015. urtetik aurrera

- ▶ **Abiapuntua: Nafarroako Gobernurako programa-akordioaren hizkuntza-politikako atala**
- ▶ **Jarrera aldaketa:**
 - **Euskalerria irratiaaren lizentzia**
 - **EITBri jarritako oztopoak desagertu dira, Nafarroako Parlamentuak behin eta berriz eskatutakoa betez.**

Hizkuntza politika berriaren printzipioak

Nafarroako Gobernurako programa-akordioan jasoak daude:

- ▶ **Zeharkakotasuna**, politika publiko guztietan eta gizarte-arloan eragina izatea.
- ▶ **Progresibotasuna**, egoera soziolinguistiko bakoitzera egokitua.
- ▶ **Eraginkortasuna, planifikazioa eta ebaluazio egokia.**
- ▶ **Parte-hartzea**, herritarrekin eta euskara sustatzen diharduten gizarte-eragileekiko elkarlana.
- ▶ **Hizkuntza-eskubideak bermatzeko** bidean aurrera egiteko arauzko babes egokia.
- ▶ Gizarteak euskarari **prestigioa ematea.**
- ▶ **Askatasuna eta borondatezkotasuna.**

Sustapenerako ardatzak

▶ **Araudia**

- **Euskararen Foru Legearen III. Titulua. Hedabide sozialak**
- **Eurokarta: Adituen Batzordearen txostenak eta Europako Kontseiluaren gomendioak.**

▶ **Programa-akordioa.**

▶ **Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariaren agerraldia Nafarroako Parlamentuan. 2015-9-18:**

- **Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuko egitura egokitu da eta aholku-emaile izatetik eraginkorra izatera pasatu da.**
- **Programa-akordioaren puntuak berretsi zituen eta lehentasunen artean aipatzeko da: euskararen sustapena hedabideetan gauzatzeko baliabide ekonomikoak berreskuratzea**

Programa-akordioa

Hizkuntza-politika:

- ▶ 12. Euskarazko komunikabideen eta euskara hein jakin batean erabiltzen dutenen finantzaketa lehengoratzea eta hobetzea eta, horretarako, hitzarmenak eta laguntzak emateko deialdiak egitea.
- ▶ 13. Finantzaketa publikoa duten hedabideak programen ehuneko bat euskaraz ematera behartzea, deialdi bakoitzak finkatzen duen ratioaren arabera.
- ▶ 14. Neurriak hartzea Nafarroako herritar guztiek euskarazko hedabideak erabili ahal izan ditzaten ziurtatzeko.

Sustapenerako arrazoiak

- ▶ **Hedabideen garrantzia: komunitatearen bizitzaren transmisoreak dira:**
- ▶ Gertatzen denaren berri ematen dute
- ▶ Entretenitzen dute: aisialdia, kultura, kirola...
- ▶ Iritzia sortzen/zabaltzen dute

Gizartearen jarrera:

- ▶ Herritarren artean euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera igotzen ari da (% 37) eta aurkakoa jeisten (%34). Nafarroako bi hizkuntzak normaltasunez erabiltzeak kontrako jarrerak leuntzea ekar dezake.

Aurrera begira:

- ▶ **Diagnostiko egokia egitea, hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak identifikatzeko.**
- ▶ **Euskarabidearen Plan Estrategikoan hedabideen garrantzia jasotzea.**
- ▶ **Elkarlana eta gizartearen parte-hartzea: Euskararen Nafar Kontseilua.**
- ▶ **Nafarroako Parlamentuak 2009an hartu zuen erabakia betetzea: Hitzarmenak sinatzea Nafarroako euskarazko hedabideekin, haien eginkizuna eta biziraupena ziurtatze aldera (Dirulaguntzen Foru Legean ezarritakoa aintzat hartuz).**
- ▶ **Hedabideen arteko lankidetzaren indartzea (Hekimen, Tokikom, Nafarpress)**

Aurrera begira:

- ▶ **Laguntzak emateko deialdiak egitea: 2016an deialdia egingo da. 250.000 euroko kontu-saila aurreikusten da (azken urteetan 39.000 euro gastatu dira).**
- ▶ **2016an, hedabideen egoera ezagutzearekin batera, hurrengo urteei begirako plangintza onartuko da, eta beharrezkoak diren diru baliabideak hartuko dira kontuan.**
- ▶ **Erakundeen arteko koordinazioa: Foru Administrazioa, toki entitateak eta gizarte eragileak.**
- ▶ **Erdal hedabideetan euskarazko edukien presentzia handitzea (programa-akordioaren 13. puntua).**